261. zk.
Bigarren aroa
Irailak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Kirolak
Gaueko
Herri Lasterketa
8. orrialdea

Erreportajea
Expogrow kalamuaren azoka
6-7. orrialdeak

Nazioarteko finaletan izan dira Telmo eta Klara Olazabal anai-arrebak

3 Erreportajea Ikasturtearen hasiera.
4 Inkesta Nora joan zara oporretan?
5 Erreportajea Landetxa Auzo Elkartea
10 Berria Udal Euskaltegiaren eskaintza
11 Haurren Leihoa Elatzeta HH
12 Gazteen Lanak Irati Bengoetxea Txingudi Ikastola BHI.
13 Gaztea Xabier Zubizarreta, Alemanian ikasle
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Maria Esther Fernández.
Irungo Jesusen Zerbitzarien komentua 1930. urtean eraiki zuten, Don José Gurruchagaren eskutik.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Alberto Anguera plaza

IUA: 43491

1992

IUA: 43492

2015

San Migel auzoan dago, Lepanto, Oiartzun, Errenteria eta Gipuzkoa kaleen artean. Izena 1992ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran jarri zioten. Urte horietan egokitze lanak egin zituzten, eta gaur egungo itxura hartu zuen.

Alberto Anguera Anglés 1885eko maiatzaren 24an jaio zen Tolosan. 1920an, Irungo mugako Osasun Zentroko zuzendari izendatu zuten. 1923an mugara heltzen ziren gaixo infekziosoentzako Ospitalea eraiki zuen Estatuak, Martindozenearen inguruan. Anguera doktorea izan zen bertako buru.

Hurrengo urtean, Udaleko erregidore izendatu zuen gobernu-ordezkariak. 1926an, kargua utzi zuen.

1931ko urrian, Espainiako Gobernuaren mandatari gisa, eta Europako beste osasun teknikariekin batera, Marseillan ontziratu zen Txinara bidean.

Bestalde, Anguera doktorea ongi integratu zen herri-giroan. “El Bidasoa” aldizkarian askotan kolaboratu zuen, osasunaren gaiak sortzen zizkion kezkak isladatzen zituelarik. Aldi berean, hitzaldi mordoa eman eta kanpainetan aktiboki parte hartu zuen, gaixotasunen eta, zehazki, minbiziaren aurka borrokatzea helburu. Harena da espiroquetra-ren aurkikuntza, sodoku sukarraren eragilearena.

Irungo Kimika Biologikoko eta Bakteriologikoko Laborategian zuzendari izan zen, baita Donostiako Erradiokirurgia Institutuan ere.

90 urte zituela hil zen Irunen, 1975ean.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Lehen kontaktuaren garrantzia

Ikasturtearen hasiera funtsezkoa da Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta irakasleentzat

Idoia Rekalde, Oihana Elortegi eta Elena Jimenez, Haur Hezkuntzako ikasgela batean.

Hasi da 2015-2016 ikasturtea Irungo haurrentzat. Batzuek gogoz hartuko zuten, uda luzearen ondoren lagunak ikusteko aukera izan dutelako. Beste batzuk urduri iritsiko ziren, irakasle edo ikasgela berria izango baitituzte aurten. Momentu zaila da askorentzat, gogorra. Bereziki, Haur Hezkuntzako txikientzat. Baita haien irakasleentzat ere. Oihana Elortegik, Elena Jimenezek eta Idoia Rekaldek ikasturtearen hasierako esperientziak kontatu dituzte.

Irailaren 1ean hasi ziren irakasleak ikasturtea prestatzen. Gelak txukuntzea, ordenatzea eta materialaren inbentarioa egitea izaten dira hasierako lanetako batzuk. Beste eskoletatik datozen irakasleei ikastetxearen funtzionamendua azaldu behar izaten diete. Formazioetan ere parte hartu dute, kontzeptu berriak barneratzeko eta egunerokoan integratzeko. "Orain hezkidetzaren eta berdintasunaren gaia lantzen ari gara, batez ere", azaldu du Idoia Rekaldek. Bestalde, gurasoekin egin beharreko bilera prestatzen aritu dira. Lehen Hezkuntzan ez bezala, Haur Hezkuntzan hasi bezain pronto egingo dituzte bilerak.

Ikasleek bakarrik ez, irakasleek ere urduri heldu diote ikasturte berriari. Oihana Elortegik behintzat, hala uste du: "Tanteo egunak izaten dira lehenengoak. Ikusi arte

> "Hiru hilabete behar izaten dituzte txikiek egokitzeko"
>
> **Idoia Rekalde**

zein ikasle eta zein guraso ditugun". Lehenengo egunetan elkarrekin joango dira haurrak eta gurasoak eskolara. Orduan pozik egongo dira ikasleak. Gurasoak joaten direnean hasiko dira kezkak eta negarrak. "Alde handia dago haurtzaindegira joan direnen eta joan ez direnen artean. Batzuentzat lehen kontaktua izaten da eskolarekin, irakasleekin eta beste umeekin", adierazi du Elortegik. Horientzat gogorra izango da hasiera. Kostako zaie eskolara ohitzea. Egokitzapen prozesua luzea dela azpimarratu du Idoia Rekaldek: "Hiru hilabete behar izaten dituzte txikiek egokitzeko".

Prozesu horretan, haurrak eskolara gustura joan daitezen saiatuko dira irakasleak. "2-3 urteko geletan jarri behar da oinarria. Lehen kontaktuak gainerako ibilbide guztia baldintzatuko du", gogoratu du Idoia Rekaldek. Edonork gogoratzen du txikitako lehen irakaslea. Haiek duten eragina handia da, hortaz. "Batzuetan ahaztu egiten dugu. Ez gara kontziente", onartu du Oihana Elortegik. Irakaslearekiko harremanarekin lotuta, hizkuntzarekikoa ere badago. Erlazio hori azaldu du Idoia Rekaldek: "Harremana ona baldin bada, hizkuntzarekiko jarrera ere halakoa izango da". Txikiekin euskara lantzea erraza dela uste du Elortegik: "Askok lehen hitzak euskaraz ikasten dituzte. Gero gurasoei irakasten dizkiete".

Guraso-irakasle harremanaz

Ezustekoak ere izaten dira ikasturteko lehen egunetan. Elkar jotzen edo hozka egiten hasten dira haur batzuk. Gurasoen erreakzioa zein izaten den azaldu du Elena Jimenezek: "Harritu egiten dira, etxean ez dutelako inoiz halakorik egin. Baina normala da, ez baldin badira lehenago beste haurrekin harremanetan egon". Seme edo alaba bakarrak direnean gertatzen da maiz, edo gurasoek haurrekin egoteko denbora askorik ez dutenean. Aiton-amonekin, izeba-osabekin edo zaintzaileekin uzten dituzte askotan. "Mugarik gabeko haurrak iristen dira azken aldian. Badaude batzuk, eskolara joan aurretik EZ bat sekula entzun ez dutenak", nabarmendu du Idoia Rekaldek. Erronka handia izaten dute, zentzu horretan, irakasleek. "Ikaskideekiko, irakaslearekiko edo materialarekiko errespetua oso garrantzitsuak dira. Hori etapa honetan barneratu behar da", aipatu du Oihana Elortegik.

> "Gurasoak ulertzen ditut orain, haiekiko enpatia dut"
>
> **Oihana Elortegi**

Hiru protagonistentzat, asko aldatu da irakaskuntza ama izan direnetik. Hoberako izan dela uste du Oihana Elortegik: "Gurasoak ulertzen ditut orain, haiekiko enpatia dut". Irakasleen artean laster konturatzen dira nork dituen haurrak eta nork ez. Batzuetan, gurasoek pentsatzen dute irakasleak ez direla haien egoera ulertzeko gai. Pasadizo esanguratsua kontatu du Elena Jimenezek: "Amak egunero negarrez uzten zuen haurra eskolan, eta behin esan zidan ez nekiela hura zeinen gogorra zen. Baietz esan nion, egunero, ordu erdi lehenago, nire semea haurtzaindegian uzten nuela". Lagungarria da, beraz, gurasoen larruan jartzeko gai izatea.

INKESTA

Nora joan zara oporretan?

Begoña Rivera

Madirilera eta Iscarrera (Valladolid). Iscarren hiru aste pasa ditugu, eta Madrilen lau egun. Madrilen zooa bisitatu dugu eta Madrilgo Jolas Parkera joan gara.

Primeran pasa dugu, uda super ona izan da. Errepikatuko nuke.

Isabel Figueroa

Ostalaritzan lan egiten dut eta udan lan gehiago dagoenez, ezin izan dut oporrik hartu. Hemen geratu naiz uda osoan, baina esan dezaket aprobetxatu dudala.

Hondartzara askotan joan naiz, eta Irungo eta Donostiako festetan egon naiz. Dena den, pentsatuta daukat nonbaitera joatea egun batzuk pasatzera. Oporrak izan bezain pronto irtengo gara.

Sheila Gurrutxaga

Alacanten aste bete pasa dut familiarekin. Han etxe batean egon gara, igerileku eta guzti. Etxean bertan geratu gara ia egunero. Benidormen ere izan gara egun batean.

Oporretan beti primeran egoten gara, aurten ere bai. Hemen hondartza daukagu, baina nahiago dut denboratxo batez hemendik atera.

Salcedo Falcón

Aurten hilabete erdirako joan naiz Soriara. Han herria daukat eta erretiroduna naizenez, gustatzen zait hara joatea, baratzean egoteko. Gustura egoten naiz Sorian, baina egia esan, bueltatzeko gogoz izan naiz azken egunetan.

Dena den, hilabete batzuk barru, Imsersoaren bidez Benidormera joateko asmoa daukat.

Auzoaren bizigarri

Nieves Erkizia, Elkarteko Presidentea, eta Edurne Ogallar, Elkarteko kidea.

Landetxako jardueren erdigune da auzo elkartea

Ventas, Bentak, Katea edo Landetxa auzoan murgiltzea, lurralde ezezaguna esploratzea izaten da irundar askorentzat. Auzokoek ere, "Irunera noa" esapidea erabiltzen dute, erdigunera doazela azaltzerakoan. Kokapenak eragin du, neurri handi batean, auzoaren izaeraren garapenean. Gaur egun, ondo komunikatuta dago Landetxa. Beste auzoen aparkaleku arazorik ere ez du, momentuz. Aspaldiko nortasunari eutsi dio, hala ere. Horren adibide da Landetxa Auzo Elkartea

Ikasturtearen hasierako bilerekin dabiltza egunotan Bizkaia kaleko egoitzan: Udalarekin bildu dira, auzoko merkatariekin, Elatzeta Ikastetxeko Gurasoen Elkartearekin... Denen parte hartzea bilatzen baitu Landetxa Auzo Elkarteak. Tamainako erantzuna jasotzen dutela onartu du Nieves Erkizia elkarteko presidenteak: "Kolaboratzaile mordoa dugu. Jubilatuen elkartea, Gazte Landetxa edo Elatzeta maiz inplikatzen dira, adibidez. Baina norbanakoak ere bai. Esaterako, kartelak jartzeko, emakume ibiltarien taldetxoa dugu. Paseoan doazen bitartean jartzen dituzte". Saltseroen zerrenda luzea dute auzo elkartean. "Ekitaldiaren edo jardueraren arabera, jende multzo bati edo besteari deitzen diogu", azaldu du Edurne Ogallar elkarteko kideak. Beti egongo da baten bat laguntzeko prest.

Modu iraunkorrean, hamar-hamabost laguneko taldetxoa aritzen da auzo elkartean lanean. Gaika banatutako hiru komisio dituzte: kulturarena, hirigintzarena, eta lokalen eta jardueren kudeaketarena. Asteroko hamabost ikastaro edo aktibitate antolatu zituzten joan den urtean. Aurten, hogeita bost proposatu dituzte. "Denei aukera ematen ahalegintzen gara, baina beti ez da posible", adierazi du Ogallarrek. Zumba, pilatesa, yoga, areto dantzak, xakea, edo pintura egin daitezke, besteak beste, Landetxa Auzo Elkartean. Aurten Errepublikako Eskolaren eraikinera lekualdatuko dituzte jarduera batzuk, leku faltagatik. Lokala txiki geratu zaien arren, kexarik ez dutela argitu du Edurne Ogallarrek: "Lokala oso ondo dago, egia esan. Kontua da auzo honetan mugimendu ikaragarria dagoela". Orain berogailua jarri diete egoitzan, eta horrek baldintzak hobetu ditu. "Lehen, neguan, hotzak akabatzen egoten ginen", gogoratu du Nieves Erkiziak.

Eskakizunen bozgorailu

"Dena ez da jaia eta barrea", azpimarratu du, hala ere, Erkiziak. Auzo Elkartearen ardura ere bada erakundeei auzoko arazoen eta erreklamazioen berri ematea. Urtarrilean, Kutxabank-i eskutitza eta sinaduren zerrenda igorri zizkioten, esaterako. Auzoan zituen kutxazain automatikoetako bat kendu zuen banketxeak 2013an. Erabaki horren ondorioak azaldu ditu Nieves Erkiziak: "Ilara ikaragarriak izaten dira. Kutxazaina hondatzen denean, beste auzoetara joan behar izaten dugu". Kutxabank-en erantzunik ez dute jaso oraindik. Beste kasu batzuetan, aldiz, lortu izan dituzte irtenbideak. Tren geltokia konpontzeko eskatuz hamar urte egin dituzte, baina iritsi da, azkenean, erantzuna. Bestalde, aurrekontu parte-hartzaileen harira, tirabira izan zuten Irungo Udalarekin, auzoan hautatutako proiektua moldatuta eraman zuelako bozketara. "Udalak onartu zuen hanka sartu zuela. Orain konponbidearen bila ari gara", aipatu du Edurne Ogallarrek.

Halako aldarrikapenak aurrera eramateko, beharrezkoa da auzo elkartearen indarra. Arazo txikiagoetarako, baina, norberak ardura har dezan eskatu du Erkiziak: "Ulertzen dut erosoa dela auzo elkartera jotzea. Baina farola bat apurtuta baldin badago, adibidez, nahikoa da BAZ-en erreklamazioa jartzearekin". Egunero jasotzen dituzte auzokoen kexak. Horrek ere badu alde ona, konfiantzaren seinale baita. Auzoan, ia denek elkar ezagutzen dutela nabarmendu du Ogallarrek: "Herri txiki baten modukoa da Landetxa. Mundu guztiak elkar agurtzen du. Ohikoa da norbaitekin gelditzea, eta hitzordura ordu bete berandu iristea, bidean ezagun pila bat topatu dituzulako". Auzo berezia da Landetxa. Esaldi esanguratsua bota du Nieves Erkiziak: "Landetxakoa dena, Landetxakoa da. Gero, beharbada, Irungoa". Baina lehenengo, Landetxakoa.

Aste Kulturala eta Gabonak

Landetxan urtean behin antolatzen dituzten ekimen puntualen artean, Aste Kulturala eta Gabonak izango dira hurrengoak. Aste Kulturala urriaren 12tik 18ra egingo dute. Egitaraua osatzen ari dira oraindik, baina denetarik izango da: abesbatzen emanaldiak, kontzertuak, ikastaro gastronomikoa, marmitako txapelketa, herri bazkaria... Auzoko jaien bertsio laburragoa izango da. Gabonetan, Mari Domingi eta Olentzero joango dira haurren eskutitzak jasotzera. Urtezahar gauean, kotilioia egingo dute. Gainera, abesbatzak baserrietan abestera irtengo dira.

Kalamuaren hiriburu izan da Irun

Bati baino gehiagori galdetuko zioten egunotan Ficoba non dagoen. Erakustazokara hurbilduz gero, laster ulertuko zuen arrazoia. Estatu osotik eta inguruko herrialdeetatik iritsitako jende andana erakarri du Ficobak irailaren 11tik 13ra, Expogrow azokaren laugarren edizioari esker. Kalamuaren sektoreko azokarik handiena da Europan. Hitzordu finkoa milaka zalerentzat. "Legalizazioaren aldeko kantua da", adierazi zuen Fermin Les Lacosta antolatzaileak aurkezpenean. 800 profesional bildu ditu Expogrow-k, 150 erakustokitan. 12.000 m²-ko eremua izan du guztira azokak, Ficobako auditoriuma, pabiloi guztiak eta aparkalekua kontuan hartuta. Salerosketarako, negoziorako, eztabaidarako eta festarako denbora izan da asteburu osoan.

Ilara harrigarria sortu da Ficoban, Expogrow-k ateak ireki aurretik. Hala ere, pazientziaz itxaron dute bisitari gehienek, ez baitute presarik. Urrutitik etorri dira, bidaiak merezi izango duelakoan. Frantsesa eta ingelesa entzuten dira, baita alemana ere. Atzerriko hizkuntzek presentzia handia dute ilaran. Gaztelania doinu ezberdinak entzuten dira, estatuko bisitarien jatorri anitzaren seinale. Euskara nekez entzuten da. Pabiloietan sartuta, azokaren tamaina antzeman daiteke. Hamarnaka stand daude bakoitzean. Kalamuaren sektoreko enpresa eta elkarteak ordezkatzen dituzte. Haziak eta landareak saltzen dituztenak ez dira falta, baina askoz zabalagoa da Expogrow. Denetarik aurki daiteke: ongarriak, sendagaiak, elikagaiak, auto-ekoizpenerako tramankuluak edo arropak, besteak beste.

Erakustokien artean galduta ez ibiltzeko, komeni da azokako gida mamitsua eskuratzea. Aldiz, gaiaren inguruko informazio sakona jasotzeko, Yerba aldizkariaren stand-era hurbiltzea da aukera. Sektoreko lehen hedabideetako bat dela nabarmendu du Paco Mascaraque komunikazio arduradunak: "Hamabost urte daramatzagu lanean. Gaur egun, paperezko aldizkariaz gain, presentzia dugu interneten eta sare sozial guztietan". Kalamuarekin lotutako edukiak lantzen dituzte. Gaiari ikuspegi ezberdinetatik heltzen diotela argitu du Mascaraquek: "Kultiboari buruzko gaiak topa daitezke, legediaren ingurukoak, edo bestelako gaurkotasuneko gaiak. Kalamua kontsumitzen duten pertsonaia ezagunen iritziak ere baditugu, edo kalamuaren historia biltzen duen sekzioa". Expogrow-n aldizkariak oparitzen dituzte, salmenta ez baita helburua. "Azokan gure irakurleak eta jarraitzaileak agurtzen ditugu", aipatu du Mascaraquek.

> Sektoreko ehunka enpresa eta milaka kontsumitzaile bildu ditu Expogrow azokak

Ficobako lehen pabiloiko izkin batean, Granadako Alpujarrako irudi ederrekin apaindutako stand-a dago. Lakaraba enpresa txikiko arduraduna da Elisabeth Puig kataluniarra. Kalamuaren munduan nola hasi zen azaldu du: "Aitaginarrebak ekin zion abenturari, duela sei urte. Hark erakarrita, Bartzelona hiria utzi eta Granadako herri txiki batera joan ginen senarra eta biok, laborari eta artisau lanean aritzera". Gustura dago Puig Expogrow-n. Beste azoketan, kalamuaren alde ludikoak du leku gehien. Ficoban, berriz, haiek lantzen duten kalamu industriala ere presente dago. "Guk elikagaietarako erabiltzen dugu kalamua. Infusioak, esnea, garagardoa edo txokolatea egiten ditugu, besteak beste", adierazi du Elisabeth Puigek.

Handik hurbil, beste kataluniar bat dabil, oso urrutiko enpresa baten ordezkari. Esloveniatik etorritako enpresa da Snail, eta zigarretak egiteko papera saltzen duela jakinarazi du Cristina Hernándezek: "Kalitatezko papera ekoizten du Snailek, oso fina. Gainera, diseinu pertsonalizatuak ere egiten ditu". Paper kaxa koloretsu eta deigarriak dituzten arren, azokan kopuru txikia saltzen dute. Produktua ezagutarazteko da helburua. Azoka gustatu zaiola aitortu du Hernándezek, "benetakotasunaren" usaina dariola. Usaina da, hain zuzen ere, Expogrow-ren bereizgarri nagusietako bat, jendea erretzera kanpora irteten bada ere. Noizean behin megafoniatik gogorarazten dute, badaezpada, pabiloien barruan debekatuta dagoela erretzea. Hiru hizkuntzetan egiten dute.

Negoziorako eta eztabaidarako guneak

Erretzea bai, baina edatea, berriz, ez dago galarazita, kafea edo garagardoa lasai hartzeko mahaiak eta sofak baitaude pabiloietan. Negozio ideiak eta gaiarekin lotutako proiektuak sortuko ziren behin baino gehiagotan Expogrow-n. Horretarako giroa eskaintzen du, behintzat. Bere helburua hori zela onartu du Leondik etorri den Mari Luz Amez bisitariak: "Erosketaren bat egiteaz gainera, informazioa jasotzeko eta negozioren bat abiatzeko

asmoa dut". Victor García hirugarren aldiz hurbildu da Expogrow-ra, eta azokak hobera egin duela uste du: "Erakusketarien kopurua eta kalitatea handitu direla esango nuke. Jarduerei dagokienez, ezagutzen ditudan beste azokek baino askoz gehiago eskaintzen ditu".

Ez da erraza, baina badago Expogrow-n irundarrak topatzeko aukera. Ficobaren parean, gasolindegiaren ondoan dagoen Marea Verde dendako arduraduna da Juan Alcedo. Ondo ezagutzen du azoka: "Handituz eta hobetuz ari da urtero. Frantziatik gero eta bisitari gehiago hurbiltzen dira, eta hori ona da hiriarentzat. Ostalariak pozik daudela uste dut". Marea Verde enpresaren inguruko xehetasunak eman ditu Alcedok: "Estatu mailako enpresa da. Nafarroan, Gipuzkoan eta Galizian ditugu dendak". Kalamua norberak etxean kultibatzeko tresnak jartzen dituzte kontsumitzaileen esku. "Mafiak kaleetatik desager daitezen lortu behar dugu", azpimarratu du Irungo Marea Verde dendako arduradunak.

Alcedok bezala, Expogrow-ren antolatzaileek ere badute kalamuaren distribuzio arautuaren eta neurrizko kontsumoaren inguruko ardura. Alde batetik, Kalamua eta arriskuak murriztea izeneko tailerra eskaini dute, sektoreko profesionalek gidatuta. Gainera, gaiari buruzko hitzaldiak eta eztabaidak antolatu dituzte Ficobako auditoriumean, Kalamuaren Nazioarteko Foroan. Mundu mailako adituak bildu ditu: Augusto Vitale Uruguaiko Drogen Idazkaritza Nazionaleko gizarte psikologoa, Ethan Nadelmann Drug Policy Alliance erakundeko zuzendaria, Lisa Sánchez Mexikoko Drogen Politikaren Erreformako koordinatzailea, Charlo Greene Alaskako kalamuaren legalizazioaren aldeko aktibista, edo Anne Coppel frantziarra, soziologo espezializatua. Arretaz jarraitu dituzte entzuleek aditu guztien hitzak, Ficobako auditoriumeko saioetan.

Ikuskizunak, kanpoan

Ficobako aparkalekuak hartu du Expogrow-ren hirugarren eremua. Ikuskizunak egon dira bertan. Europa mailako Flame Off txapelketa izan da deigarrienetako bat. Beirari putz eginez objektuak sortzeko teknika da Flame Off-a. Denbora zehatz batean, pieza ikusgarriak sortu behar izan dituzte artistek. Expogrow Kopako sariak ere banatu dituzte ekoizleen artean, kalamu mota ezberdinak probatu ondoren. Beste lehiaketak, azokaren kokalekuarekin lotura egin du: herri kirolen emanaldiak egin dituzte Ficoban. Baina kontrasterako osagai gehiago ere izan dira azokan. Esaterako, sagardo kupelak eta kalamu freskagarria ekoizteko makinak jarri dituzte ia elkarren ondoan.

Expogrow-ko ikuskizunen artean ere, kontzertuek erakartzen dute jende gehien. Zortzietan isten dituzte ateak Ficobako pabiloiek. Baina orduan hasten da festa aparkalekuko karpan. Aurten zirku itxurakoa izan da, eta taberna izan du albo batean. Nazioartean ezagunak diren musikariak aritu dira Expogrow-ko eszenatokian: Third World reggae talde jamaikarra, Flavia Coelho brasildarra, Fyahbwoy dancehall artista espainiarra, SFDK taldeko Acción Sánchez eta Zatu rap abeslariak edo Collectif 13 frantziarrak. Etxeko talde bat ere izan da, Kulto Kultibo hain zuzen ere. Goizeko lauretara arte luzatu da festa ostiralean eta larunbatean. Igande iluntzean, berriz, nekeak ez du barkatu. Atsedena hartu behar izan dute Expogrow-n parte hartu duten guztiek. Asteburu bizia izan da.

Gauez korrika agurtuko dute udara

Gero eta gehiago dira herri lasterketak Irunen eta inguruko herrietan. Laburrak, luzeak, lauak, maldatsuak, goizez egiten direnak, eta arratsaldekoak. Horregatik, zaila da jada lasterketen munduan proposamen berritzailea egitea. Gauez korrika aritzeak, baina, balio erantsia ematen dio lasterketari. Hori pentsatu zuten, behintzat, Irungo Gaueko Herri Lasterketaren antolatzaileek. 2012an jarri zuten martxan. Beraz, lau edizio beteko ditu aurten. Irailaren 19an izango da Irungo Gaueko Herri Lasterketa (20:30).

2014ko Irungo Gaueko Herri Lasterketa. Argazkiak: Festak.com

Udako azken asteburua hautatu zuten Comarcaldea elkarteko antolatzaileek lasterketa kokatzeko. Erabakiaren arrazoiaren berri eman du Ángel Gonzálezek: "Udaren ondoren, jendea lanera bueltatzen da. Eta horrekin batera, kirola egiten hasten da berriro". Kirol sasoiari ekiteko modua izan daiteke, beraz, parte hartzaileentzat. Lasterketa laburra da, 6,2 km-koa. Hortaz, ez du entrenamendu handirik behar. Prestaketa minimoarekin amaitu daiteke Gaueko Herri Lasterketa. "Hasiberrientzat oso egokia da. Guk asmo horrekin antolatu genuen", onartu du Gonzálezek.

Dena den, maila handiko korrikalariak ere erakarri izan dituzte, ibilbide labur eta bizkorra tentagarria baita haientzat. Ibilbidea bakarrik ez, noski. Sariek ere erakartzen dituzte atletak. "Batzuentzat sariak ezinbestekoak dira. Baina arazo bat ere badute: maila handiko jendea erakartzen dutela. Horregatik egiten ditugu zozketak. Korrikalari popularrek ere sariak lortzeko aukera izan dezaten", azaldu du Ángel Gonzálezek.

308 parte hartzaile izan ziren 2012an, lasterketaren lehen edizioan. Aurten, 800 baino gehiago espero dituzte. Nahiko urrun dago oraindik kopuru hori. Hala ere, izen emateen erritmo motela ohikoa dela adierazi du Gonzálezek: "Azken astera arte itxaroten dute gehienek. Eguraldiaren iragarpenari begiratzen diote, nahikoa entrenatu ote duten hausnartzen dute, edo lagunaren azken erabakiaren zain egoten dira bestela". Parte hartzaileen %50ek ematen du izena azken astean.

Lasterketaren beste kopuru deigarria, emakumeen parte hartzearena da, %45era iristen baita. Ez ohiko kopurua da herri lasterketetan. Aurten, bederatzi eta hamasei urte arteko haurrek ere parte hartu ahal izango dute lasterketan. Guztira, Gaueko Herri Lasterketak noizbait 2.000 parte hartzaile har ditzakeela uste du Ángel Gonzálezek, baina ez dutela komunikabideetan nahikoa zabaltzen. Ipar Euskal Herritik, esaterako, korrikalari gutxi hurbiltzen dira, ez dutelako lasterketaren berri izaten. "Gure lanak ere baditugu, eta ezin diogu antolakuntzari nahi bezain beste denbora eskaini", nabarmendu du Gonzálezek.

Lasterketa antolatzeko gestioak errazteko sortu zuten Comarcaldea elkartea. Ez du beste helbururik, momentuz. Lasterketaren egunerako, Txingudi Atletismo Taldeko kideen laguntza jasoko dute aurten ere. Guztira, 50 lagun inguru ariko dira antolakuntzan. Irailaren 19an, iluntzeko zortzi eta erdietan irtengo da Gaueko Herri Lasterketa. San Juan plazan egongo dira irteera eta helmuga. Tartean, sei kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariek, Irungo erdiguneko kaleetan zehar. Amaieran, San Juan plazaren inguruko tabernetan pintxo-potea hartzeko bi txartel jasoko ditu bakoitzak. Etxean edo Artaleku kiroldegian dutxatu ondoren, gaua luzatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

IZEN EMATEA:

www.kirolprobak.com web gunean.

PREZIOA:
-Haurrek eta gaztetxoek: 9 euro.
-Helduek: 13 euro (txip horia dutenek) edo 15 euro (txipa alokatu nahi dutenek).

Izen emate bakoitzeko euro bana jasoko dute Txingudi Atletismo Taldeak eta DOA Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Goi mailako anai-arrebak

Nazioarteko finaletan lehiatzen ari dira jada Telmo eta Klara Olazabal, ur-bizietan



Telmo eta Klara Olazabal, Bidasoa ibaiaren ertzean.

Azken urteotan, asko izan dira nazioarteko slalom lehiaketetan maila handia eman duten gipuzkoarrak. Horien artean, irundarrak ere badaude. Ander Elosegik eta Joan Crespok denbora daramate horretan. Baina gazteak ere indartsu datoz. Deigarria da Olazabal anai-arreben kasua. Nazioarteko txapelketetan nabarmentzen hasi dira ia aldi berean. Hogeita bi urte ditu Telmo Olazabalek, hamazazpi besterik ez, Klarak. Aurten, urrezko domina lortu du Klarak taldekako proban, 23 urtez azpiko Munduko Txapelketan, Brasilen. Lehiaketa berdinean, laugarren izan da Telmo, K1eko proba lehiatuan. 23 urtez azpiko Munduko Txapelketarekin amaitu dute denboraldia. Abuztuko azken asteburuan izan da, Krakovian (Polonia).

Europako Txapelketarekin bukatu duzue kirol sasoia. Zein balorazio egin duzue?

KLARA OLAZABAL: Udara osoan Europan zehar bidaiatzen eta entrenatzen ibili gara lehiaketa hori prestatzeko. Nik bakarkako finalean sartzea lortu dut, eta jaitsiera ona egin dut, amaieran izan ezik. Taldekako lehian hirugarren postua lortu dut. Beraz, pozik nago egindako lanarekin.

TELMO OLAZABAL: Aitortu behar dut Brasilen, Munduko Txapelketan laugarren izan ondoren, gehiago espero nuela. Baina finalerdian egindako akats pare baten ondorioz, finaletik kanpo gelditu naiz. Horrelakoa da ur-bizietako piraguismoa. Egun batean proba irabaz dezakezu, eta hurrengoan azken tokian gelditu.

Atsedena hartzeko denborarik izango al duzue orain?

TELMO OLAZABAL: Hondarribiko jaietan pixka bat izan dugu, aurtengo denboraldia oso luzea izan baita. Baina denboraldiaurreari ekingo diogu laster. Hurrengo denboraldian dugu jada burua.

Aita piraguista izan zen. Berak bultzatuta hasi zineten?

TELMO OLAZABAL: Egia da bost urte genituenean hasi ginela aitarekin piraguan. Mundu honetan sartu gintuen, eta piraguarako grina sortu zitzaigun.

KLARA OLAZABAL: Nigan Telmok ere eragina izan du. Piraguismoan hasi ginenetik elkarrekin entrenatu izan dugu. Klubean lehenengo, eta nazioarteko taldean orain.

TELMO OLAZABAL: Arrebaren bilakaera ikustea polita izan da. Maila handia erakutsi du gaztetatik. Baina nire ustez, lanaren ondorioz egin du lekua.

Duela bost urte sortu zen Gipuzkoan nazioarteko lehiaketei begirako taldea. Zergatik?

TELMO OLAZABAL: Lehen dena kluben bidez egiten genuen. Baina nazioarteko lehiaketetan maila hobea lortzeko, errendimendu handiko taldea sortu genuen, klub ezberdinetako ordezkariekin. Bost urtean, taldearen maila ikaragarri handitu da.

Kanpora joan behar izaten duzue entrenatzera, Pauera edo La Seu d'Urgellera. Ahalegin handia eskatzen du.

TELMO OLAZABAL: Bai, Gipuzkoako goi mailako zentroa furgoneta bat da. Ordu asko sartzen ditugu errepidean. Gure esfortzua eskatzen du, eta gurasoen ahalegin ekonomikoa ere bai.

KLARA OLAZABAL: Instalazio egokien faltak hori dakar. Gipuzkoan ez baitugu urbizietako kanalik. Ahalegin handia da, baina gure helburuak lortzeko ilusioz egiten dugu.

Zergatik gustuko duzue ur-bizietako piraguismoa?

KLARA OLAZABAL: Asko bidaiatzen dugu, ibaiak eta kanalak ezagutzen ditugu, eta jendea ere bai. Kirol arloan, onena da oso aldakorra dela, guztiok ditugula aukerak. Gainera, ez dago kirolariaren prototipo konkreturik. Batzuk handiak eta indartsuak dira, beste batzuk txikiak eta teknikoak.

TELMO OLAZABAL: Naturarekin kontaktuan zaudela. Denboraren kontra lehiatu behar duzu, eta ura erabili behar duzu helburuak betetzeko. Kontrola ezina den zerbaiten kontrola bilatzea da slalom-a.

Urte olinpikoa izango da hurrengoa. Rio de Janeiron egoteko aukerarik baduzue? Imajinatzen al duzue?

TELMO OLAZABAL: Selekzio probetan parte hartuko dugu, behintzat, datorren urtean. Zaila izango da txartela lortzea, baina saiatuko gara.

KLARA OLAZABAL: Olinpiar Jokoak ametsa dira guretzat. 2016koak agian ez, baina 2020koak jar daitezke helburu moduan.

Ander Elosegi bi aldiz izan da laugarren Olinpiar Jokoetan. Iritsiko al da domina Irunera?

TELMO OLAZABAL: Bi aldiz laugarren izatea gutxiestea ez da zuzena. Horrek esan nahi du zortzi urtez goi mailan aritu dela. Hala ere, 2016an berriro saiatuko da, eta aukerak izango ditu.

KLARA OLAZABAL: Ander Elosegiren belaunaldiko palistak erreferente izan dira guretzat. Bidea ireki eta helburu handiak jartzeko beldurra kendu digute.

Euskara doan ikasteko aukera dute langabeek

Lannahi programa azpimarratu du Irungo Udal Euskaltegiak matrikulazio kanpainaren hasieran

"Lana errazten zaie, baina aitortu behar da ikasleek esfortzu handia egiten dutela"
Jaione Campo, Irungo Udal Euskaltegiko zuzendaria

"Euskal hiztun berriak sortu eta hiztunen artean erabilera esparruak zabaldu nahi ditu Udalak"
Josune Gomez Irungo Udaleko Euskara Ordezkaria

"Duela urte bete ez nintzen euskaraz hitz egiteko gai"
Borja Gamarra, ikaslea

Langabezian geratzea ezbeharra da. Nekez utzi dezake ondorio positiborik. Egoera horretan dauden irundarrei abantailaren bat emate aldera, Lannahi programa antolatu dute Irungo Udalak, udal euskaltegiak, Bidasoa Bizirik erakunde publikoak eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak. Doako euskara ikastaroak eskainiko dizkiete Urdanibia plazako euskaltegian.

Bigarren ikasturtea izango du Lannahi programak. Joan den urtean ia berrehun ikasle bildu zituen. Horietatik, %82k maila ezberdinetako azterketa ofizialak gainditu zituen. Denbora betetzeko modua izateaz gainera, langabeen formaziorako tresna ere bada Lannahi. Dena den, azterketa gainditu izanari baino gehiago, euskaraz aritzeko lortu duen gaitasunari eman dio garrantzia gehien Borja Gamarra ikasleak: "Duela urte bete ez nintzen euskaraz hitz egiteko gai. Orain, akats batzuk egin arren, moldatzen naiz". Urteak zeramatzan Gamarrak euskara ikasi nahian. Baina ez zuen jarraipena emateko modurik topatzen. "Lanean nengoenean, ez nuen denborarik. Eta langabezian gelditu nintzenean, ez nuen dirurik", azaldu du Borja Gamarrak. Hogeita hamalau urterekin gelditu zen lanik gabe.

Jarraitutasun hori ziurtatzen du Lannahi programak. Astelehenetik ostiralera, egunean hiru edo lau orduz aritu behar izaten dute ikasleek. Derrigorrezkoa da %85eko asistentzia. Bestela, programan parte hartzeko aukera galtzen baitute. Klaseak arintzen ahalegintzen dira euskaltegiko arduradunak: "Saiatzen gara saioak dinamizatzen. Esaterako, ez da inoiz irakasle bakarra egoten. Lana errazten zaie, baina aitortu behar da ikasleek esfortzu handia egiten dutela". Hala ere, klasetik kanpo euskara praktikatzeko gogoa geratzen zaie. Taldean sortzen den giro onaren seinale. "Askotan gelditzen gara trago bat hartzeko eta euskaraz aritzeko", baieztatu du Borja Gamarrak. Denak langabezian daudenez, elkarri laguntza emateko modua ere izan daiteke Lannahi.

Denetariko ikaskideak izan ditu Gamarrak. Gazteak, helduak, euskara maila ertainekoak eta sekula klaserik jaso gabekoak. Euskararekin lehen kontaktua izan duten horiek gogoratu ditu Jaione Campo udal euskaltegiko zuzendariak: "Lortu dugu jende horrek euskaltegia ezagutzea, eta euskararekin harreman polita sortzea". Borja Gamarrak ikasturte osoan zehar parte hartu du Lannahi programan. Hala ere, txandaz-txanda izena emateko aukera dago. Lehenengorako, irailaren 18ra arte dago zabalik matrikulazio epea. Interneten egin daiteke SAC24h zerbitzuaren bidez, edo HAZeko autozerbitzu terminaletan, bestela (San Martzial kalea, 2). Ikasle guztiek mailaketa proba egin beharko dute euskaltegian, matrikulazio egunetan, 10:30etatik 13:00era edo 16:30etatik 19:00etara.

Eskaintza zabala izango du euskaltegiak

Irungo Udal Euskaltegiko beste ikastaroetan ere eman daiteke izena. Irailaren 18an amaituko da guztien matrikulazio epea. Euskaltegian bertan egin daiteke (Urdanibia plaza, 5). Ordutegi, maila eta erritmo eskaintza "zabala" dela azpimarratu du Jaione Campo euskaltegiko zuzendariak. Ohiko ikastaroetakoez gainera, beste zenbait talde berezi antolatuko dituzte: HABE azterketa ofizialak prestatzekoak, gurasoei zuzendutako taldeak, mintza taldeak edo beste herrialde eta erkidegoetatik datozenei zuzendutako AISA ikastaroetakoak. Astean bost orduko ikastaroak izango dira arinenak, eta hamabostekoak trinkoenak.

Matrikulazioaren prezioari dagokionez, joan den ikasturteko tasari eutsi dio euskaltegiak. "Ordu gehien sartzen dituzten ikasleak sarituko ditugu", jakinarazi du Campok. Zenbat eta euskara eskola ordu gehiago hartu, orduan eta merkeagoa izango da ordu bakoitzaren prezioa. Gainera, euskara ikasteko bekak eskatzeko aukera ere eman du Irungo Udalak. Urriaren 8ra arte egin daiteke eskaria, interneten SAC24h zerbitzuaren bitartez, edo HAZeko autozerbitzu terminaletan. 62.340 euroko diru poltsa du Udalak beka horiek emateko. Ikasle bakoitzaren matrikularen %75 estali ahal izango du gehienez. "Euskal hiztun berriak sortu eta hiztunen artean erabilera esparruak zabaldu nahi ditu Udalak", adierazi du Josune Gomez Euskara Ordezkariak. Euskarak batzen gaitu da aurtengo matrikulazio kanpainaren leloa.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Eguillor Bacalaos

Elatzeta. HH Joel 5 urte

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Txingudi Ikastola BHI. 4. maila. Irati Bengoetxea Iruretagoiena

Algaraka

Emandako argazkiari erreparatu eta istorio bat sortu behar dute ikasleek, umore puntu batez.

BIZITZAKO IKASGAIA

Istorio hau nire bizitari buruzkoa da, hau da, Joanes mutiko bihurriarena. Gipuzkoako herri txiki batean bizi nintzen, Azpeitian, nire gurasoekin, Joxepirekin eta Anttoniorekin, eta nire arreba Mariarekin. Nik 10 urte nituen, eta Mariak nik baino 5 gehiago. Ikastolan, lagun asko nituen. Beno, egia esan ez nituen asko; gaiztotxoena edo bihurriena nintzenez denek beldur zidaten, eta nire lagun izatera, nik agindutakoa egitera, etab. behartzen nituen. Gaiztakeria asko egiten nituen, baina beti beste norbait zela esaten nuen. Nire "lagunek" eta nik besteak jipoitzen genituen gogoa genuenean, gauzak lapurtzen genizkien eta horrelako maltzurkeriak egiten genituen.

Urte batzuk igaro eta berdin jarraitzen nuen, baina egun batean ikasle berri bat etorri zen gelara. Hasieran, nahiko jatorra zirudien, baina geroago, harropuzten hasi zen. Behin, iskanbila bat eduki genuen bien artean, eta lurrean altxa ezinik utzi ninduen. Orduan, nirekin ibiltzen ziren guztiak berarekin joan ziren, ni baino hobea zelako. Ni bakar-bakarrik gelditu nin-tzen, arreba hil baitzen, biriketako gaixotasun batengatik. Denbora joan ahala, beste guztiak bezala handitu egin nintzen. Oraindik burla egiten zidaten, bakartia nintzela eta arrebarik ez nuela gogoraraziz. Horrela jakin nuen nola sentiarazten nituen besteak. Urte batzuk geroago, lanean hasi nintzen ondoko herriko taberna batean, zerbitzari gisa. Denbora asko pasa zen arren, oraindik ere, jendeak nitaz barre egiten zuen. 22 urte nituenean mundua ezagutzea pentsatu nuen. Gurasoak eta familiakoak agurtu, eta nuen diruarekin mundua ezagutzera abiatu nintzen. Lehenengo, Frantziara eta Italiara joan nintzen. Ondoren, Finlandiara Japoniara eta Vietnamera. Diru asko ez nuenez, aterpetxe xumeetan egiten nuen lo. Bazkaltzen nengoen batean, telebistan txakur baten iragarkia ikusi nuen; baina ez zen izaki bizidun bat, robot bat baizik. Iragarkian, honako hau zioen: "Bakarrik sentitzen zara? Etor zaitez Estatu Batuetako unibertsitate honetara eta eros ezazu konpainia egiteko laguna. Merke-merkea da gainera!". Hori entzundakoan, maletak egin eta hara joateko hegazkin txartel bat erosi nuen. Nik nahi nuen gauza bakarra lagun bat edukitzea zen. Hango unibertsitatera iritsi eta txakurra ikusitakoan ia-ia dirurik ez nuela konturatu nintzen. Baina lagun bat edukitzeko aukera bakarra zen. Azkenean, dirurik gabe gelditu arren erosi egin nuen. Ez nuenez dirurik, etxeetako atarietan edo zubi azpian egiten genuen lo. Baina ni oso gustura nengoen, lagun bat bainuen. Hilabete batzuk pasa eta lagun txakurra euria zela eta izorratu egin zen; dirurik ez nuenez ezin izan nuen ezer egin. Azkenean, atsekabeak jota, tren geltoki batera joan nintzen lagunduko ninduen norbaiten edo zerbaiten bila.

Gertazkinzun honekin gauza bat ikasi dut; lagunak ez direla erosten, beraiek nahi dutelako izan behar dira lagunak. Eta ezin zara inorekin fidatu, gutxien espero duzunak izorra zaitzake eta.

%100 MUGIKORRA DA JADA INTERNET (EDO IA)

AIMAC Komunikabideen Ikerketarako Elkarteak internauten ohiturak aztertzen dituen ikerlana aurkeztu du berriki. Etxetik kanpo egiten duten interneten kontsumoa aztertzen du.

Erabilerari lotutako ohitura deigarri batzuk azaleratu dira ikerlanean. Esaterako, 10 internautatik 9k mugikorra erabiltzen duela interneten konektatzeko. %97rentzat lehen aukera da.

10 internautatik 6k tableta duen arren, sakelakoa da mugikortasunean errege, oraindik ere. Gehienetan, mugikorrek datuen tarifa esleituta izaten dutela izango da arrazoia, ziur aski.

Beste datu bitxi bat da ordenagailu eramangarri gehiago daudela etxeetan, mahai gainekoak baino. Ordenagailuen %81 da eramangarria, eta %68 mahai gainekoa, ohiko erabilera etxean egiten bada ere.

Kontsumo horrek gora egin du azken urteotan. Gaur egun, egunean lau orduz aritzen gara interneten, batez beste, arrazoi pertsonalak soilik kontuan hartuta (Profesionalak alde batera utzi dituzte ikerketan). Kopuru harrigarria da. Ziur ez zenuela uste horrenbeste zirenik.

Bestalde, ikerketaren arabera, online kontsumitzen dugun komunikabide nagusia telebista da. Bideoak nahieran eskaintzen dituen zerbitzu bilakatu da ia. Jarduera eta eduki ohikoenak dira sare sozialak, bideojokoak, albisteak, kirolak eta eguraldia. Jende asko da jada telebista gehien interneten ikusten duena.

Zure buruari galdetu baldin badiozu zergatik aukeratzen ditugun gero eta pantaila handiagoak mugikorrentzat, ondorengo datuek argituko dizute zalantza: internet kontsumitzeko beste gailu batzuk ordezkatzen ari gara. Horregatik, erosotasuna eta tamaina-ikusgarritasuna erlazio egokia behar ditugu.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

“Abentura etxean hasten da”

XABIER ZUBIZARRETA

Txingudi Ikastolan eta Pio Baroja Institutuan ibili ondoren, Telekomunikazio Ingeniaritzako Gradua ikasi zuen Xabier Zubizarretak. Donostian aritu zen, Nafarroako Unibertsitateko Tecnun Ingeniaritza Eskolan. Gradu Amaierako Lana egiteko, Alemaniarako bidea hartu zuen. Urte bete eman du Nurenbergen, Bavarian. Orain, atsedena hartzen ari da etxean, Irunen, urrian berriro hegazkina hartu aurretik. Masterra hasiko du orduan, Erlangeneko Unibertsitatean.

Zerk eraman zintuen Alemaniara?
Fraunhofer Institutuarekin lankidetza hitzarmena zuen unibertsitateak. Gradu Amaierako Lana eta praktikak Nurenbergen egiteko aukera eman zidaten, eta ideia ona iruditu zitzaidan. Urte erdia egin ondoren, beste erdian ere han gelditzeko eskaintza egin zidaten.

Nurenbergen bizi izan zara urte honetan. Bavarian dago, Europako lurralde aberatsenetako batean. Egunerokoan, zertan antzematen da hori?
Kalean nabari den giroan. Jendeak bizimodu lasaia darama. Kalean, supermerkatuetan edo tabernetan ikusten da hori. Elkarrizketetan ez da lanari edo beste kezkei buruz hitz egiten. Banalagoak izaten dira gaiak.

Nolako lan baldintzak topatu dituzu?
Hasieran proiektua egitera joan nintzen, praktiketako kontratu batekin. Kontuan izanda karrera bukatu berritan nengoela, eta alderatuta hemengo aukerekin, ez naiz batere kexatzen. Azpimarratzekoa da lan giroa. Ez dago beste leku batzuetan topa daitekeen lehiakortasun hori. Ni berehala hartu ninduten taldeko bat gehiago izango banintz bezala. Tratu berdina eman zidaten. Hemen, aldiz, enpresetako hierarkiak pisu handiagoa du.

Hala ere, denok entzun ditugu, Alemaniara sekulako prestakuntzarekin joan eta gustuko lanik topatu ez dutenen kasuak. Zergatik gertatzen da hori?
Bai, nik ere ezagutzen ditut halako kasuak. Jende batek badu ohitura abentura hutsean joateko. Hegazkinerako txartela hartu eta lehen gaua non pasako duen jakin gabe. Horrek arrisku handia du. Bi masterrekin oilaskoa saltzen amaitu dezakezu. Ondo mugitzen jakin behar duzu halako egoera batean aurrera ateratzeko.

Zein aholku emango zenuke zuk, orduan?
Esango nuke abetura etxean hasten dela. Aldez aurretik dena lotuta utzi behar dela, ahal dela. Lan kontratua eta etxeko giltzak eskuan dituzula joatea da onena. Gaur egun, internet eta teknologia berriak erabilita, badaude guzti hori kudeatzeko tresnak.

Etxebizitzari dagokionez, zer nolako merkatua topatu duzu?
Nik zortea izan nuen, enpresak bazuelako bere etxebizitza parkea. Praktiketan joan ginen ikasleoi pisu txiki bana utzi ziguten. Bestalde, alokairuan oinarritutako merkatu aktiboa dago Alemanian. Mugimendu handia dagoenez, erraza da alokairuko etxebizitza merkea lortzea.

Hizkuntza ikasten ari zara. Kostatu al zaizu?
Topatu dudan arazo handienetakoa izan da. Ideiarik gabe joan nintzen. Aleman klaseetara joaten hasi nintzen, nire kabuz ikasten ere aritu nintzen, eta ahal bezain beste erabili nuen bertakoekin. Gaur egun, komunikatzeko moduan moldatzen naiz hizkuntzarekin.

Alemaniarrak nolakoak dira atzerritarrekiko?
Denetarik topa daiteke. Nire kasuan, nahiko eskuzabal hartu ninduten. Ni unibertsitate giroan mugitzen nintzen, hori kontuan hartzekoa da. Aipatzekoa da Alemanian badutela ongi etorri kultura deitzen den kontzeptu bat. 1960ko hamarkadaz geroztik langile pila bat jaso dituzte, eta ohituta daude.

Haien ohituren artean, zer iruditu zaizu bereziki bitxia edo deigarria?
Legeari dioten errespetua. Muturreraino eramaten dute. Goizeko hiruetan, kale guztia hutsik dagoenean, semaforoko argia berde jarri arte itxaroteko gai dira.

Bizikletan ibili zara han alde batetik bestera. Zer azpimarratuko zenuke garraioari dagokionez?
Oso lurralde laua da. Bizikletan 20 km egin ditzakezu ia konturatu gabe. Garraio publikoarekin, berriz, ezustekoa hartu nuen. Garestia da, eta atzerapen handiak egoten dira. Nahiko eskasa da zerbitzua.

Orain Erlangenera lekualdatuko zara, masterra ikastera. Unibertsitateei dagokienez ere, alde handia al dago?
Nirekin batera praktiketan aritu diren beste ikasle asko Erlangeneko unibertsitatetik zetozen. Beraz, banituen hango erreferentziak. Esango nuke baietz, alde handia dagoela. Hasteko, han unibertsitateak doakoak dira, eta garrantzia izugarria ematen diote ikasleari eta ikasleen munduari: klubak, eskolaz kanpoko jarduerak... Ikasle kultura garatua dute.

Beste bi urte behintzat egin beharko dituzu Alemanian masterra ikasten. Ez al duzu bueltatzeko eta etxetik hurbil lana topatzeko gogorik?

Bai, baina lau hilabetean behin etxera bueltatzeko aukera izango dut. Afera konplexua da hori. Familiaren eta lagunen ingurura bueltatu nahi nuke noizbait, noski. Hala ere, lan baldintzak aztertzeko modukoak dira. Jaioterrira bueltatzearen prezioa zein den ikusi behar da.

Gero eta gehiago zarete Alemaniarako bidea hartu duzuen profesional kualifikatuak. Hemengo agintariak kezkatu behar lituzke errealitate horrek?
Jakina. Herrialde askotan gertatu izan da hori historian zehar. Sobietar Batasuna, esaterako, genio guztiek ihes egin zutelako erori zen, hein handi batean. Agintariek orain egin behar dutena da kanpoan dagoen jendea, edo joatear dagoena erakarri. Hori egiten ez duten bitartean, bide okerra daramate.

Tailerrak

Autoestimu tailerra emakumeentzat

Zer?
Taldean egiten den jarduera honetan emakumearen autoestimua eta ongizate pertsonala lantzea da helburu.

Norentzat? Irungo emakumeentzat.

Noiz? Irailetik abendura.

- Goizeko taldea: asteartetan 9:30etatik-11:30era.

-Arratsaldeko taldea: asteazkenetan 18:00etatik-20:00etara.

Lekua? Gizarte Ongizate Arloko kanpoko aretoa (sarrera Mirarietako Ama Birjinaren kaletik).

Inskripzioak? Irailaren 7tik 23ra 010 telefonoan edo, bestela, www.irun.org/igualdad web gunean.

Prezioa? Doakoa.

Antzerki Ikastaroak

Zer? Haur, gazte eta helduentzako antzerki ikastaroak emango dira, Irungo Udalaren babesari esker.

Informazioa eta matrikulak: Irailaren 7tik 25era, 11:00etatik 14:00etara.

Non: Legaleón Teatro. Reina Fabiola, 28, behe (Anaka).

Telefonoa: 676 53 65 46.

Eraikinetako eta lokaletako garbiketa ikastaroa

Zer?

- 40 ordu teoriko + 50 ordu praktiko.

- Ezinbesteko betekizuna da egoiliar eta lan baimena eta gaztelaniazko maila egokia edukitzea, bai ahoz bai idatziz.

- Sarrera proba bat egingo da prestakuntza egiteko interesa duten pertsonentzat.

Noiz? Urriaren 2tik azaroaren 2ra.

Ordutegia? 09:30-13:45 (astelehenetik ostiralera)

Non? Irungo Gurutze Gorria, Euskal Herria, 14-16.

Izena emateko: 943 62 11 62.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2.behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Lapurriturri. Orientazioa: "Iparrorratza eta mapa"

Eguna: Irailak 20.

Ordutegia: 10:00 - 13:00.

Lekua: Lapurriturri Informazio Gunea (Erlaitzeko gaina).

Izen-emateak: www.irun.org/cod/participacion/orientacion edo telefonoz 010/ 943 505 152

Udal Euskaltegia. 2015-2016ko ikastaroak

Euskalduntze maila guztiak

- Gurasoentzako taldeak
- Mintza taldeak
- etab.

Matrikulatzeko epea: Irailaren 9tik 18ra

Lekua: Udal Euskaltegia (Urdanibia plaza, 5)

Informazio gehiago: 943 505 273 edo euskaltegi@irun.org

Irailak 18

Zer? Adour Bidasoa Margo Lehiaketaren XXIV.edizioaren sari banaketa eta erakusketaren hasiera.

Ordua? 19:30ean.

Non? Amaia KZ erakusketa aretoan.

Prezioa? Doako sarrera.

Irailak 20

Zer? Girabiraren IV. jardunaldia. Oraingoan graffitia izango da protagonista.

Ordua? 13:30ean.

Non? Sargia parkean.

Irailak 26

Zer? “Futbol day” txapelketa, Real Unionen Mendeurrena ospatzeko.

Jarduerak? 3x3 futbol partidak eta adin guztietako jendeari zuzendutako jarduera ezberdinak.

Izena emateko? Irailaren 22a baino lehen. Hamasei urte baino gehiagoko neska mutilek izena eman dezakete Luis Marianoko Turismo bulegoan.

Prezioa? 30 euro talde bakoitzak.

Non? Zabaltza Plazan.

Irailak 25-26-27

Zer? Irun Rock Jaialdia

Kontzertuak?

25ean, San Juan plazan, 20:00etan: Havos, Correos, Rural Zoombies.

26an, San Juan plazan, 13.00etan: Los Bracco, Smoke Idols,

26an, Ficoban, 20:00etatik aurrera: Siniestro total, Nacho Vegas, El Columpio Asesino, Guadalupe Plata, La M.O.D.A., Bullet Proof Lovers.

Izena emateko? Irailaren 22a baino lehen. Hamasei urte baino gehiagoko neska mutilek izena eman dezakete Luis Marianoko Turismo bulegoan.

Prezioa? San Juan plazan egingo direnak doakoak izango dira.
Ficoban egingo direnak, 25/30 euro.

CASER ANAKA

Zer? Hitzaldia: Komunikazioa alzheimerra edo beste de mentzia gaixotasunak dituzten pertsonekin. Hizlaria: Maria Victoria Lucero (Psikologoa).

Non? "CASER RESIDENCIAL" egoitzan, Anaka, 8

Noiz? Irailak 17

Ordua? 18:00etan

Prezioa? Doakoa

Izena emateko? 943667780

TXINGUDI BEER WEEK

Zer? Artisau garagardoen astea ospatuko dute Irunen, Hondarribian eta Hendaian.

Jarduerak:

- Garagardo ekoizpen tailerrak
- Dastatzea eta gaztarekin uztartzea.
- Bazkari/ Afaria garagardo uztartzearekin.
- Errezeta gastronomikoak garagardoarekin.
- Sariak eta onarpenak.

Noiz? Irailak 14tik 20ra.

Non? Boulevard, Estebenea, Maype, Etxeberria, Ostebi, Kabigorri, Aia, Sunbilla, L'attelier, Arkupe, Gastroteka Danontzat, Bar Manolo, Don Jabugo, Irungo Atsegina, Rugby Irun Elkartea, eta Lupulu.

Antolatzaileak? Local Bier, Zapiain Distribución, Cervecería Boulevard eta Estebenea Jatetxea.

Informazio gehiago:

/txingudibeerweek.com/

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN
info@ekarinmobiliaria.com
☎ +34 943628333
www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 99.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela biminierekin, sukaldea, balkoia, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Pisu zaharberritua.
Ref: 04333 140.000 €

Pisua salgai Irun Alde zaharra
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea. Berokuntza eta pisua zaharberrituak.
Ref: 04399 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Irun Arbes
Azalera 81 m², 3 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, berokuntza, trastelekua, balkoia eta terraza. Oso eguzkitsua.
Ref: 04370 144.000 €

Pisua salgai Irun Behobia
Azalera 70 m², 2 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, balkoia, berokuntza, igogailua, eguzkitsua
Ref: 04369 170.000 €

Etxea salgai Irun Erdian
Azalera 200 m², 3 gela, 2 bainugela, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, biminia, berokuntza, lorategia, eguzkitsua. Garajea eta bodega barne.
Ref: 04395 460.000 €

Etxea salgai Irun Ventas
Azalera 270 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, 2 terraza, berokuntza, eguzkitsua. Garajea eta bodega barne.
Ref: 04374 480.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

HERRI JAKINTZA
euskaltegia

IKASI EUSKARA BESTELA EZ GARA!

- Maila guztiak
- Hizkuntz eskakizunak
- HABE titulu ofizialak
- EGA | IVAP | IRALE
- Guraso taldeak

Matrikula zabalik 2015/16

Matrikula:
Irailaren 7tik 25era
11:00etatik - 13:00etara
17:00etatik - 19:00etara

Irunen, zuk euskaraz!

HERRI JAKINTZA euskaltegia

HABE

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com